



**Busturiko  
Udala**



# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiako Udaletxea

EGUNA / FECHA: 18/9/2013

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Ma-haiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Tokiko Go-bernu Batzordea bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian bu-  
rutzeko. Ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate anderearen aginduz, zinegotzien artean behar adina denboraz banatutako gai ordenaren arabera ekin zitzaion bilerari, eta honako erabakiak hartu ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indi-  
cados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asisten-  
cia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta  
de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en  
primera convocatoria. No asistió Berezi Echebarría Rivas (Bil-  
du). Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-  
Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme  
al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales  
con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes  
acuerdos:

### 1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 2013ko  
uztailaren 17ko saioko akta.

### 1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar  
el acta de la sesión de 17 de julio de 2013.

### 2.- Kardio Kick-Boxing Busturlagun Herri Entitateen Fitxate- gian sartzea.-

Kardio Kick-Boxing Busturlagunak Busturiko Herri Entitateen  
Fitxategian izena emateko helburuarekin ekarritako doku-  
mentazioa aztertu ondoren, eta Busturiko Udaleko Biztan-  
leen Parte-hartze eta Informazio Araudi Organikoan ezartzen  
diren betebeharrak betetzen direla ikusita, Batzordeak zera  
proposatu zuen aho batez:

- 1.- Aipatutako eskaera onartzea.
- 2.- Udal sektore kontseiluetan ordezkariak izenda ditzaten  
galdegitea.

### 2.º.- Inscripción en el Fichero de Entidades Populares de Kardio Kick-Boxing Busturlagun.-

Examinada la documentación aportada por la asociación  
Kardio Kick-Boxing Busturlagun, con objeto de instar su ins-  
cripción en el Fichero de Entidades Populares de Busturia y  
comprobado que cumple con los requisitos establecidos en  
el artículo 51 del Reglamento Orgánico de Participación e  
Información Vecinal del Ayuntamiento de Busturia, la Junta  
de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Aceptar dicha petición.
- 2.º.- Requerirles para que designen representantes en los  
consejos sectoriales municipales.

### 3.- Kirol eta kultur animazio ikastaroa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondoko  
kirol eta kultur animazioko jarduerak antolatzea 2013-2014  
ikasturtean (bi alditan banatuko dira: bata urriaren 1etik  
otsailaren 15era eta bestea otsailaren 16tik ekainaren  
30era).

### 3.º.- Cursos de animación deportiva y cultural.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó organi-  
zar las siguientes actividades de animación cultural y depor-  
tiva en el curso 2013-2014 (que se distribuirán en dos perio-  
dos, el primero entre el 1 de octubre y el 15 de febrero y el  
segundo entre el 16 de febrero y el 30 de junio):

| EKINTZAK<br>ACTIVIDADES | EGUNAK<br>DIAS                                      | ORDUTEGI<br>HORARIO | KUOTA ERROLDATUAK<br>CUOTA<br>EMPADRONADOS | KUOTA EZ ERROLDATUAK<br>CUOTA<br>NO EMPADRONADOS |
|-------------------------|---|---------------------|--|--|
| yoga                    | astelehenak<br>eta asteazkenak<br>lunes y miercoles | 18:30-20:00         | 120 €                                      | 240 €  |
| mantentze<br>gimnasia   | astearteak<br>eta ostegunak<br>martes y jueves      | 19:30-20:30         | 120 €                                      | 240 €  |
| 3.adineko               | astearteak  | 17:00-18:00         | 60 €                                       | 120 €  |



Busturiko  
Udala



# Akta

|                             |   |             |       |       |
|-----------------------------|---|-------------|-------|-------|
| gimnasia                    | eta ostegunak<br>martes y jueves  |             |       |       |
| 3. adineko<br>burua martxan | astearteak<br>martes  | 18:00-19:00 | 30 €  | 60 €  |
| jorsketa                    | ostiralak<br>viernes  | 17:00-20:00 | 100 € | 200 € |
| eskulanak                   | astelehenak, asteazkenak,<br>ostegunak edo ostiralak<br>lunes, miercoles,<br>jueves o viernes | 17:30-20:30 | 100 € | 200 € |
| euskara                     | astelehenak<br>eta asteazkenak<br>lunes y miercoles   | 19:00-21:00 | 50 €  | 50 €  |

Ikastaroak egiteko baldintza izango da ikastaro bakoitzeko ikasleen ratioa gutxienez 10 eta gehienez 12 ikaslekoa izatea. Era berean, aho batez erabaki zuen ikastaroak iazko begirale berberak ematea, aldi baterako kontratu partziala eginda hasiera batean urriaren 1etik otsailaren 15era bitartean, eta, ikastaroek bigarren aldian jarraituz gero, otsailaren 16tik ekainaren 30era.

Euskara ikastaroari dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen AEKri aurrekontua eskatzea ikastaroan izena ematen duten ikasleen kopuruaren arabera.

La condición para la realización de los cursos será que la ratio de alumnos por curso será de un mínimo de 10 y un máximo de 12.

Asimismo acordó, por unanimidad, que los cursos se impartan por los mismos monitores que el pasado curso, contratados laboralmente mediante las modalidades de contratos temporales a tiempo parcial inicialmente del 1 de octubre hasta el 15 de febrero y, si continúan los cursos durante un segundo periodo, desde el 16 de octubre hasta el 30 de junio.

Respecto del curso de euskara, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar presupuesto a AEK para la impartición del curso, en función del número de alumnos que se inscriban.

#### 4.- Harri Berri Elkartearen idazkia San Migel jaietan idiprobak antolatzeke.-

Jarraian, Harri Berri Elkartek aurkezturiko idazkiak irakurri ziren. Horieta jakinarazten da San Migel jaiak direla-eta idiprobak antolatuko direla, eta, horretarako, laguntza ekonomikoa eskatzen diote Udalari, hala nola megafonia, hesiak eta 4 modulu uzteko, baita argi-puntu baten konexioa ere.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea eta 1.700 €ko laguntza ematea.

#### 4.º.- Escrito de Harri Berri Elkartea sobre prueba de bueyes de San Miguel.-

Seguidamente, se dio lectura a los escritos presentados por Harri Berri Elkartea, dando cuenta de la organización, con motivo de las próximas fiestas de San Miguel, de pruebas de arrastre de piedra con bueyes, para lo que solicitan ayuda económica por parte del Ayuntamiento y la cesión de la megafonía, vallas y 4 módulos, así como la conexión de un punto de luz.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a su petición y conceder una subvención de 1.700 €.

#### 5.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten tekniko eta juridikoak ikusita, aho batez onartu zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

1.- F. B. L. (23/13 txost.), San Kristobal auzoko 11.en eraikina-ren azpiko antzinako ukulua birgaitzeko, 21.171,88 €ko au-

#### 5.º.- Licencias Urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes técnico y jurídicos emitidos, por unanimidad, acordó conceder las siguientes licencias que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

1.º.- F. B. L. (Expte. 23/13), para reacondicionamiento de



Busturiko  
Udala



# Akta

rrekontuarekin.

2.- Y. G. A. (37/2013 txost.), komuna eta bestelakoak konpontzeko Axpe auzoko 117-Bj ez. etxebizitzan, 1.850 €ko aurrekontuarekin.

3.- S. G. S. (27/2013 txost.), San Bartolome auzoan lanabesen etxola bat eraikitzeko, 5.536,35 €ko aurrekontuarekin.

antigua cuadra bajo el edificio en el barrio de San Cristóbal, n.º 11, con un presupuesto de 21.171,88 €.

2.º.- Y. G. A. (Expte. 37/2013), para reparación en baño y otras, en el barrio de Axpe 117-BJ Izq., con un presupuesto de 1.850 €.

3.º.- S. G. S. (Expte. 27/2013), para construcción de caseta de aperos, en el barrio de San Bartolomé, con un presupuesto de 5.536,35 €.

## 6.- Akordioa Kosten Mugapenarekin San Kristobalen oinezkoentzako bidexka baten mantentzerako.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen akordio bat izenpetzea Euskal Herriko Kosten Mugapenarekin San Kristobal auzoko bidexka baten mantentzerako, baselizaren ondoan; bidexka Mugapenaren kontura egingo da, igarotze-zorraz kalteturiko lursailen jabeek dagozkien lanak egin ezean.

## 6.º.- Acuerdo con la Demarcación de Costas sobre sendero peatonal en San Cristóbal.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó suscribir un acuerdo con la Demarcación de Costas del País Vasco para el mantenimiento de un sendero en el barrio de San Cristóbal, junto a la ermita, cuya creación correrá a cargo de la Demarcación, en el caso de que los particulares propietarios de los terrenos afectados por la servidumbre de tránsito no realicen las labores que a ellos les corresponde.

## 7.- N. C. P.en eskaera auto-taxian publizitatea jarri ahal izateko.-

N. C. P.k aurkezturiko idazkia ikusita, berea den auto-taxian publizitatea jarri ahal izateko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen gaia mahai gainean uztea eta eskatzaileari eskatzea jarriko litzatekeen publizitate motari buruzko informazio gehiago emateko.

## 7.º.- Solicitud de N. C. P. sobre publicidad en autotaxi.-

Vista la solicitud presentada por N. C. P. para la colocación de publicidad en el vehículo auto-taxi de cuya licencia es titular, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dejar el asunto sobre la mesa y requerirle para que aporte más información sobre el tipo de publicidad que se colocaría.

## 8.- K. D. O.ren proposamena ingeles ikastaroaren gainean.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ez onartzea ikasturte honetan K. D. O.k aurkezturiko proposamena biztanleriarentzako hezkuntza-zerbitzurako, zehazki, auzotari eta udal langileei ingeleza irakasteko.

## 8.º.- Propuesta de K. D. O. sobre cursos de inglés.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó desestimar durante este curso la propuesta presentada por K. D. O. para el servicio de educación a la población, en concreto para la enseñanza de inglés al vecindario y a los empleados municipales.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Alkatea/La Alcaldesa,

Idazkaria/El Secretario,

Izp.: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez